

*Gida didaktikoa*

**HAN ETA HEMENGO  
IPUINAK I**

**TXOKOLATEZKO  
ETXEA**

# TXOKOLATEZKO ETXEA

## Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

**Bibliografia** 15.or.

**Egileak** 16.or.

## **HELBURUAK:**

## **EDUKIAK:**

### **Jarrerak:**

Begirunea.  
Zuzentasuna.  
Ordena.

## **PROZEDURAK:**

### **A. AHOZKO TESTUAK ULERTZEA:**

a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.

### **B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:**

a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.

1. Hari kronologikoari jarraitzen saiatzea.
2. Izenburua eta pertsonaien izenak bereiztea.

b. Elkarrizketa:

1. Zuzendua
2. Imitazioa

## **KONTZEPTUAK:**

Denborazko nozioak: Lehenago / ondoren.

Idazketa: izenburua. Esaldiak / hitzak / letrak.

Koherentzia: ipuinari ez dagokiona bereiztea.

Lexikoa:

## JARDUERAK:

### TALDE HANDIAN

1. Irakasleak ipuina kontatuko du, beste ipuinetako zatiak erantsiz. Haurrek esan egin behar diote gaiez aldatu duenean.

2. Asmakizunak:

- a. Txokolatea: Gozo-gozoa, zuria edo marroia izan daiteke.
- b. Erratza: Dena zango eta, hala ere, zutik ezin egon.
- c. Labea: Beti sutan eta sekulan ez erretzen.
- d. Mihia: Beti lehorrean eta beti bustirik.

e. Beti autuan eta beti bustirik.

f. Oiloa: Puntu eta puntu, eta petatxurik ez.

3. Ikasi aho-korapiloa:

"Martin bonbil, erregearen sorgin, tipula eta gatz, Martin buru-latz, egin ezak ipurdian hatz. "

### TALDE TXIKIETAN

Osatu ipuina, etxera eramateko:

1. Gogoratu denon artean ipuineko ekintza garrantzitsuenak.

2. Jarri ordenan ipuineko marrazkiak, talde txikietan.

3. Izenburua azalean ipini beharko dute. Horretarako, mahaian

dauden txartelen artetik egokia dena aukeratu beharko dute:

"Txokolatezko etxea": Irakasleak irakurriko du, eta haurrek bereizi egin beharko dute izenburua ondo esaten duenean: "Etxeko Txokolatea", "Txokolate Etxea", "Txoko-txoko Etxea" eta "Txokolatezko Etxea"

4. Txokolate eta etxea hitzak agertzen direnean, inguratu egin beharko dituzte.

5. Bilatu berdintasunak pertsonaien izenen eta taldekoenen artean:

Aita, Ama, Hansel, Gretel eta Sorgina...

6. Ikasi pertsonaien izenak bereizten.

- Elkarrizketa: ipuinaren elkarrizketaren imitazioa.

A) Neska.- Noiz itzuliko gara?

Aita.- Oraindik ez gara heldu eta itzultzeko pentsatzen?

Neska.- Lagunekin jolastera joan nahi duzu?

Aita.- Laguntzen badidazue, berehala amaituko dugu.

Semea.- (Jasotzen ari dela.) Aita, katagorri bat. Harrapatzera joan naiteke?

Aita.- Ezingo duzu. Utzi bakean.

Neska.- Bion artean bai!

Ama.- Ez zaitezte basoan gehiegi sar!

Neska.- Etxera eraman genezake.

Mutila.- Lehendabizi, harrapatu egin behar dugu.

Neska.- Nik uste dut sumatu egin gaituela.

Mutila.- Orduan, jai dugu.

Neska.- Zarata asko egingo genuen.

Mutila.- Bueno, beste egun batean harrapatuko dugu. Aitari galdetuko diogu nola egin tranpa bat.

B) Gretel.- Galdu egin gara. Gurasoak kezkatuta egongo dira.  
 Hansel.- Hotzak nago, eta goseak.  
 Gretel.- Ni ere bai.  
 Hansel.- Lekuren bat aurkitu behar dugu gaua igarotzeko.  
 Gretel.- Ibiltzen jarraituko dugu, ea baserriren bat aurkitzen dugun; bestela, zuhaitzen baten azpian egin beharko dugu lo.  
 C) Atsoa.- (Haurrak etxera begira, jaten. Atzetik, atsoa agertu zaie.) Hara, hara, nor dugu hemen? Zer, goseak zaudete?  
 Atsoa.- On egin! Jan nahi baduzue, barruan badut jaki gehiago. Sar zaitetzte.  
 Atsoa.- Zer, ez didazue izenik esango? Non duzue mihia?  
 Gretel.- Hau Hansel da, eta ni Gretel.  
 Atsoa.- Eta nolatan hemen?  
 Gretel.- Galdu egin gara, ez dakigu geure etxera itzultzeko!  
 Atsoa.- Nekaturik egongo zarete. Esnea edan, eta joan zaitetzte ohera. Bihar, dena konponduko da.

## **Gidoi literarioa:**

### **TXOKOLATEZKO ETXEA:**

IZENBURU: Txokolatezko etxea  
 NESKA: (Ad Lib)  
 MUTILA: (Ad Lib)  
 LAMIA: (Off) Behin batean, bazen familia bat: gurasoak eta seme-alabak. Euren baserritik (etxetik)  
 gertu, basoan, emakume bat bizi zen, txokolatezko etxetxo batean.  
 EMAKUMEA: (Ad Lib)  
 NESKA: (Ad Lib)  
 MUTILA: (Ad Lib)  
 LAMIA: Hona hemen aita, semea eta alaba.  
 AITA: (Ad Lib)  
 NESKA: (Ad Lib)  
 MUTILA: (Ad Lib)  
 LAMIA: Aita aizkolaria zen, eta goiz batean mendira abiatu zen bere seme-alabekin.  
 MUTILA: Goazen, goazen...  
 NESKA: Banoaaaa...  
 AITA: (Ad Lib)  
 MUTILA: Aita, aita.  
 AITA: Zeeeeer?  
 MUTILA: Non dago gure zortea? / (Ai, enee)  
 AITA: Berehala helduko gara.  
 NESKA: Noiz itzuliko gara?  
 MUTILA: Horixe!  
 AITA: Oraindik ez gara heldu eta itzultzeko pentsatzen?

NESKA: (Ad Lib)  
MUTILA: (Ad Lib)  
LAMIA: (Off) Aitak egurra mozten zuen, eta seme-alabak bildu eta ondo lotzen zuten errazago eramateko.  
Lanean ari zirela katagorri bat hurbildu zitzairen. Alabak hura ikusi zuenean, harrapatu nahi izan zuen.  
SEMEA: (Ad Lib)  
NESKA: (Ad Lib)  
SEMEA: Aita, katagorri bat! Harrapatzera joan naiteke?  
NESKA: Baai, mesedeez!  
AITA: Ezin izango duzu. Utzi bakean. Lana daukagu-ta.  
NESKA: Bion artean bai!  
AITA: Ezetz esan dut, eta bakean uzteko. 5:13  
NESKA: (Ad Lib)  
MUTILA: Jooo, aitaaaa!  
KATAGORRIA: (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Katagorriak baso aldera jo zuen / eta hurrak haren atzetik joan ziren, aita konturatu gabe.  
NESKA: Ixoo!  
MUTILA: Bai, bai (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Katagorria basoan barna abiatu zen, umeak atzetik jarraika zituela.  
KATAGORRIA: (Ad Lib)  
NESKA: Tira, azkar.  
MUTILA: (Ad Lib) Ji, ji, ji...  
NESKA: Etxera eraman genezake.  
MUTILA: (OFF) Bai, baina... (ON) lehendabizi harrapatu egin behar dugu.  
KATAGORRIA: (Ad Lib)  
NESKA: Nik uste dut ikusi egin gaituela.  
MUTILA: Ba orduan, jai daukagu.  
KATAGORRIA: (Ad Lib)  
NESKA: Zer egin dezakegu?  
MUTILA: Ez dakit.  
KATAGORRIA: (Ad Lib)  
LAMIA: (Off) Aitak lasai-lasai jarraitu zuen lanean eta ez zen konturatu hurrek alde egin zutela.  
Hurrak, oharkabeen, asko urundu ziren. Eta ez ziren ohartu, katagorria harrapatu ezinik itzultzea erabaki zuten arte.  
NESKA: Zarata asko egin dugu, antza.  
MUTILA: Bueno, beste egun batean harrapatuko dugu. Aitari galdetuko diogu nola egin tranpa bat.  
NESKA: Bale!  
MUTILA: Ene! Orain esan duzula eta, kezkatu egongo da!  
NESKA: (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Basotik korrika eta bueltaka ibili ziren , / baina ez zuten aita aurkitu.  
NESKA: (Ad Lib) (TARTEAN)  
MUTILA: (Ad Lib) (TARTEAN)  
LAMIA: Orduan konturatu ziren galdu egin zirela.  
NESKA: Gehiegi urundu gara eta galdu egin gara.  
MUTILA: Tira, aurkituko gaituzte.  
NESKA: Hala izango ahal da!

LAMIA: (OFF) Aitak Lana amaitu zuenean jabetu zen aita, haurrak ez zeudela inguruan.

AITA: (Ad Lib) Hara, non sartu dira hauek?

LAMIA: (OFF) Haurrak kezkatutzen hasita zeuden, ez zekiten zer egin.

NESKA: (Ad Lib)

MUTILA: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Aitak basoa miatu zuen. Baina ez zituen inon ikusten, eta gainera ilundu egin zuen.

AITA: (Ad Lib)

NESKA: (Ad Lib)

MUTILA: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Etsita, aitak etxerako bidea hartu zuen.

LAMIA: (OFF) Ama ere artega zegoen. Oso berandu zen eta ez aita ez seme-alabak ez ziren inondik ageri.

AMA: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Aita heldu zenean, gertatutakoa kontatu zion emazteari. Goibel eta triste geratu zen ama, seme-alabei zerbait txarra gertatuko zitzaien beldurrez.

LAMIA: (OFF) Ama lasaitzen ahalegindu zen aita.

AITA: (Ad Lib)

AMA: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Herritarrak iratzartu zituzten oihuka.

AMA: Lagundu, lagundu, gure seme-alabak galdu egin dira! Lagundu!

AITA: Gure seme-alaben bila joan behar dugu!

LAMIA: (OFF) Herriko lagunak suziriak hartu eta bila joan ziren.

ALKATEA: Inork aurkitzen baditu, dei dezala.

LAMIA: (OFF) Herritarrak basotik sakabanatu ziren.

ALKATEA: Hansel!

GIZON: Gretel!

AMA: Hansel, Gretel!

AITA: Non sartu zarete? GIZON: Hansel, Gretel!

GRETEL: Galdu egin gara, gurasoak kezkatuta egongo dira.

HANSEL: Bai, ni hotzak nago, eta goseak.

GRETEL: (OFF) Bai.. (ON) Ni ere bai.

HANSEL: Lekuren bat aurkitu behar dugu gaua emateko./ E?

GRETEL: Bai, ibiltzen jarraituko dugu ea baserriren bat aurkitzen dugun; bestela, zuhaitz baten pean egin beharko dugu lo.

HANSEL: (Ad Lib) Urbegiren bat aurkituko bagenu, edan ahalko genuke.

LAMIA: (OFF) Gau hartan, basoan jende asko ibili zen.

ALKATEA: Hansel, Gretel!

AITA: Non zaudetee? / Ai, ama...

LAMIA: (OFF) Katagorria ere bai.

KATAGORRIA: (Ad Lib)

ALKATEA: Hansel, Gretel!

KATAGORRIA: (Ad Lib)

GIZON: Non sartu ote dira?

10:32

ALKATEA: Zerbait ikusi duzu?

GIZON: Ez, hemen ez daude.

ALKATEA: Eta zuek, zerbait ikusi duzue?

AMA: Ez, ez.

AITA: Ez. Ai, ez dira inon agertzen.

LAMIA: (OFF) Hurrek azkenean etxe bat topatu zuten // eta oso pozik jarri ziren.

HANSEL: (Ad Lib)  
GRETEL: (Ad Lib)  
GRETEL: Hara! Etxe bat. Lo egiterik izango dugu, azkenean!  
HANSEL: Norena ote da?  
GRETEL: Ez dakit, baina zer gertatu zaigun kontatuko diegu eta lagunduko digute.  
LAMIA: (OFF) Bitan pentsatu baino lehen atearen ondoan ziren. Atean jo zutenean, zerbait berezia nabaritu zuten. / Eskua sudurrera eramanez, gero ahora, / eta berriro dastatu ondoren ...  
GRETEL: Txokolatea da!  
HANSEL: Bai, harrigarria da, ezta?  
GRETEL: Nuen gosearekin, gaitzerdi!  
HANSEL: Ez da ametsa izango, e?  
LAMIA: (OFF) Haurrak etxeari begira zeudela, atzetik agurea agertu zitzaaien.  
HANSEL: (Ad Lib)  
GRETEL: (Ad Lib)  
AGUREA: (Ad Lib) Hara, hara, nor dugu hemen? Zer, goseak zaudete?  
HANSEL: Bai!  
GRETEL: Bai, oso!  
AGUREA: On egin! Jan nahi baduzue, barruan daukat jaki gehiago. Sar zaitetzte.  
LAMIA: (OFF) Haurrak buelta eman eta bikoteari begira geratu ziren. Nor ote ziren agure eta atso haiek?  
AGUREA: Zer, ez didazue zuen izenik esango? Non duzue mihia?  
GRETEL: Hau Hansel da eta ni Gretel.  
AGUREA: Eta nolatan hemen?  
GRETEL: Galdu egin gara, eta ez dakigu gure etxera itzultzeko!  
AGUREA: Nekaturik egongo zarete. Esnea edan eta joan zaitetzte ohera. Bihar konponduko da dena.  
LAMIA: (OFF) Emakumeak katilu bana esne eman zien. //  
HANSEL: (Ad Lib)  
GRETEL: (Ad Lib)  
LAMIA: Edaten zuten bitartean, giltza handi bat atera zuen eta gela batean sartu zen. / Haurrak harrিতuta zeuden, inoiz ikusi ez zuten gozoki pila baitzegoen bertan.  
HANSEL: Gurasoei kontatzen diegunean ez digute sinetsiko.  
GRETEL: Egundoko zortea gurea, ezta? 13:44  
HANSEL: (Ad Lib) Bai, (OFF) bai.  
HANSEL: Etxera itzultzean bidea ikasi behar dugu, itzuli ahal izateko. Hau demasekoa da!  
AGUREA: Zer da demasekoa?  
HANSEL: Zure etxea!  
GRETEL: Hurrengo batean itzul gintezke?  
AGUREA: Orain egin behar duzuen lo egitea da.  
AGUREA: Esnea edaten amaitu duzue?  
HANSEL: Bai.  
GRETEL: Bai.  
LAMIA: (OFF) Haurrak zerbait txarra susmatzen hasi ziren. Emakumeak janaria eman bazien ere, berezi samarra zen, beldurgarria eta misteriotsua.  
HANSEL: TARTEAN (Ad Lib)  
GRETEL: TARTEAN (Ad Lib)  
AGUREA: Ederki, orduan, esango dizuet non egingo duzuen lo. Zatozte nirekin.  
HANSEL: Ai, ama. / Goazen, Gretel.  
GRETEL: Bai (Ad Lib)

LAMIA:(OFF) Emakumea logeletara abiatu zen eta haurrak haren atzetik, zintzo-zintzo. Agurea ate baten aurrean gelditu zen, zabaldu egin zuen eta...

AGUREA: Hau izango da zure logela.

GRETEL: Eta Hanselena?

AGUREA: Horko hori, oso hurbil.

LAMIA:(OFF) Gretel egokitu zitzaion logelan sartu zen.

SORGINA: Bihar arte, ondo lo egin.

GRETEL: Bai... baita zuk ere... Bihar arte, Hansel.

LAMIA:(OFF) Gretel barrura sartu ondoren, agureak ate itxi zuen. Gero, Hansel iletatik hartu eta oso zakarki beste gelara eraman zuen.

HANSEL: (Ad Lib) E! Zer ? Baina, .... Gre! Mmm!...

LAMIA: (OFF) Agureak gelara sartu zuen indarrez. Eta giltzaz itxi zuen ate.

LAMIA: (OFF) Hansel, beldurraren beldurrez, ohiuka hasi zen.

HANSEL: Gretel, Gretel, Gretel!

GRETEL: Hansel, zer duzu? Hansel! Zer gertatzen da?...

LAMIA: (OFF) Atearen aurrean sorgina zegoen eta irekitzea galarazten zion.

GRETEL: Non da? Zer egin diozu? Ken zaitez!

SORGINA: (Barre)

HANSEL: Gretel, lagundu! Lagundu!

SORGINA: (Barre) Alferrik ari zarete, hobe duzue isildu! Negarrez urtuko zarete eta ezertarako ez!

GRETEL: (Negar)

SORGINA: Zure neba hortxe geratuko da, eta zu nire morroia izango zara. Hor duzu zeure ohea. Bihar arte!

GRETEL: (Negar)

LAMIA: (OFF) Sorgina aulkian eseri zen, eta nahiz eta logale egon hantxe geratu zen zelatan erdi-lo.

SORGINA: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Gretelek ezin zuen lorik egin eta ate ondora joan zen, Hansel lasaitzeko asmoz.

GRETEL: Hansel, hortik aterako zaitut, nola edo hala, baina askatuko zaitut.

HANSEL: (Ad Lib)

SORGINA: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Sorgina ez zen handik mugitu....

LAMIA: (OFF) ... eta hurrengo egunean...

SORGINA: Gretel, ekar ezazu egur gehiago, sua itzaltzen ari da eta!

GRETEL: Oraintxe.

LAMIA: (OFF) Sorginaren mandatu guztiak betetzen zituen Gretelek, Hansel bahituta zegoelako.

GRETEL: Hemen duzu.

SORGINA: Ondo da. / Ja, ja, ja, ja...

GRETEL: Ai, ene (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Hansel giltzapean zegoen, baina (atean zegoen zuloatik) atearen zirrikitutik sukaldea ikusten zuen.

SORGINA: Gretel, sar ezazu ogia labean! Zoaz erre kara eta ekar ezazu balde bat ur. Gretel, tolestu izarak!

GRETEL: (Ad Lib)

LAMIA: (OFF) Sorgina mariagintzaile hutsa zen: Greteli agindu bat bestearen atzetik ematen zizkion.

SORGINA: Gretel, zoaz oilategira eta ekar ezazu arrautza bat. Gretel, eramaiozu janaria zure nebari.

GRETEL: Bai, andrea. / (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Gretelek mandatu guztiak ahalik eta hobekien betetzen zituen, sorgina ez haserrarazteko.  
GRETEL: Tori, Hansel.  
HANSEL: Eskerrik asko.  
GRETEL: Ez dakizu zeinen gaiztoa den, egun guztia lanean nauka.  
Zuri behintzat jaten ematen dizu. Ni goseak akabatzen nauka.  
HANSEL: Hartu, jan ezazu.  
LAMIA: (OFF) Baina sorgina adi-adi zegoen, eta ez zion jaten utzi.  
HANSEL: Kontuz!  
GRETEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Et, et, et, ezta pentsatu ere. Hau ez da zuretzat, zure nebarentzat baizik.  
GRETEL: (Negar)  
HANSEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Oso argal zaude, ia ez duzu haragirik. Mmmm! Baina gizentzen zarenean, gozo-gozo egongo zara.  
HANSEL: E? E? Baina... (Negarrez.) Gretel! Jan egingo nau!  
SORGINA: (Ad Lib)  
GRETEL: Uztazu bakean! Sorgin nazkagarria!  
SORGINA: (Ad Lib) Alde hemendik! Zoaz lanera!  
GRETEL: (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Sorginak ukenduak eta edabe magikoak egiten jarraitu zuen.  
HANSEL: Ua, ua, ua! Jan egin nahi nau! Ama! Lagundu!  
SORGINA: Utzi negar egiteari, mukizu alaena! Ixo! **18:48**  
SORGINA: (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Baina sorgina ezin zen egun guztia zelatan egon. Eta loak hartu zuenean Hanselek Greteli deitu zion.  
SORGINA: (Ad Lib)  
HANSEL: (OFF) (Zero Sei) Gretel, gretel, lagundu! Gretel! Lagundu, mesedez, Gretel. Atera nazazu hemendik.  
LAMIA: (OFF) Gretel ateraino hurbildu zen eta handik ateratzako modua asmatuko zuela agindu zion Hanseli.  
GRETEL: Hansel, Hansel. // (ON) Badakit zer egingo dugun!  
HANSEL: (OFF) Zer, Gretel?  
GRETEL: Har ezazu oilo hezur bat eta sorgina hurbiltzen zaizunean, erakutsiozu. Horrela uste izango du argal-argal zaudela eta hartara ez zaitu jango.  
HANSEL: Gretel, atera nazazu hemendik!  
GRETEL: Zuk egin nik esan dizudana; bitartean, zertxobait bururatuko zait.  
LAMIA: (OFF) Hurrengo egunean, Gretel batera eta bestera ibili zen mandatuak egiten. Sorginak lapikoari eragiten zion etengabe, beti bezala.  
SORGINA: Gretel, ekar ezazu ura! Ur gehiago, Gretel! Azkar! Zer esan dizut, ba?  
GRETEL: (Ad Lib)  
HANSEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Gretel, ekar ezazu egur gehiago, sua itzaltzen ari da eta!  
GRETEL: (Ad Lib) Hona egurra.  
SORGINA: (OFF) Gretel, sar ezazu ogia labean!  
GRETEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Zoaz erre kara eta ekar ezazu balde bat ur.  
GRETEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Gretel, tolestu izarak!

LAMIA: (OFF) Sorgina Hansel gizenduta zegoen ala ez ikustera joan zen.  
SORGINA: (Ad Lib) Ea, mutiko, erakutsi eskua!  
LAMIA: (OFF) Oilo hezur bat erakutsi zion. Eta ukitu ondoren, honela esan zuen sorginak:  
SORGINA: Brrr! Ez zara inondik inora gizentzen! Gehiago jan behar duzu, entzun duzu?  
LAMIA: (OFF) Egunak joan egunak etorri, Hanselek oilo hezurra erakusten zion sorginari, eta hartara ez zuen jaten. Egia esateko, sorgina gaiztoa zen benetan, baina nahiko tuntu ere bai.  
SORGINA: (Ad Lib) (Ekerri hau, eta beste hau, etab... lehen bezala) (Barre)  
HANSEL: (Ad Lib)  
GRETEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Oraindik ez zara gizendu? Gehiago jan behar duzu ba!  
HANSEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Gretel, ekar ezazu egur gehiago, sua itzaltzen ari da eta!  
GRETEL: Bai, andrea. // Hemen duzu, andrea.  
SORGINA: Gretel, sar ezazu ogia labean!  
GRETEL: Bai. (Ad Lib)  
SORGINA: Zoaz erre kara eta ekar ezazu balde bat ur.  
GRETEL: (Ad Lib)  
SORGINA: Gretel, tolestu izarak!  
GRETEL: (Ad Lib)  
SORGINA: (Ad Lib)  
SORGINA: Ea mutiko, erakutsidazu eskua!  
HANSEL: (Ad Lib)  
SORGINA: (Ad Lib) Baina, baina... Brrr! Ez zara inondik inora gizentzen! Gehiago jan behar duzu, aditzen?  
HANSEL: (Ad Lib)  
LAMIA: (OFF) Gau batean, sorgina loak hartu zuela aprobetxatuz, Hanselek Greteli deitu zion.  
SORGINA: (Zurrungak) **22:18**  
SORGINA: (Zurrungak)  
HANSEL: Gretel, gretel!  
GRETEL: Zer?  
HANSEL: (OFF) Sorgina loak hartu du. Kenduiozu giltza! Begira, lepotik zintzilik dauka!  
Baina kontuz! Ez ezazu iratzarri, bestela, gureak egin du!  
HANSEL: (OFF) Azkar, azkar, atera nazazu hemendik!  
GRETEL: (Ad Lib)  
HANSEL: (OFF) Amaitu da amets gaiztoa! Goazen lehenbailehen!  
SORGINA: (Zurrungak)  
SORGINA: (Ad Lib)  
HANSEL: Mua, mua, mua!  
GRETEL: Hansel maitea, amaitu da.  
LAMIA: (OFF) Zoritxarrez, sorgina esnatu egin zen eta bertan harrapatu zituen.  
HANSEL: (OFF) Ez, berriro ez, hau zoritxarra!  
GRETEL: Sorgin zikin hori, ez gaituzu berriro harrapatuko! Hansel, ireki atea!  
LAMIA: (OFF) Orduan, Gretelek sorgina gela barrura bultzatu eta atea giltzaz itxi zuen.  
HANSEL: (OFF) Ja, ja, ja! Bai ondo! Harrapatu dugu!  
HANSEL: Hor geratuko zara betiko, gu bagoaz. Ondo pasa hor barruan!  
LAMIA: (OFF) Eta alde egin zuten korrika.  
SORGINA: Aska nazazue! Oiiiiii! **23:40**  
LAMIA: (OFF) Herrian, ama lur jota zegoen, ez zituelako haurrak aurkitu.  
AMA: (Ad Lib)  
HANSEL: (Ad Lib)  
GRETEL: (Ad Lib)

HANSEL: Hemendik da.

GRETEL: Ez, ez, hemendik.

HANSEL: A, bai, arrazoi duzu.

LAMIA: (OFF) Hansel eta Gretel herrirantz abiatu ziren...

HANSEL: Iritsi gara, iritsi gara.

GRETEL: Azkenean

LAMIA: (OFF) ... eta jakina, etxean sartu ziren.

HANSEL: (Barre)

GRETEL: (Barre)

AMA: (Negar)

LAMIA: (OFF) Aita esna zegoen. Haren poza haurrak ikusi zituenean!

AITA:E? Nondik agertu zarete? Frida, Frida, zatoz hona!

AMA: (Ad Lib)

HANSEL: Ama, aita...

GRETEL: Hau zoriona! (Barre)

(Aita eta seme-alabak musuka.)

## BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

[www.Zernola.net](http://www.Zernola.net): Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

**EGILEAK**

**GOIATZ  
MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

**SOINU BANDA:**

Inhar Val

**EDIZIOA:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**  
Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**  
Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**  
Macarena Sobrón  
Noemí Sobrón  
Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

**K 2 0 0 0 S . A .**

**Produktore exekutiboa:**  
Tomas Ugalde

**Euskarako arduraduna:**  
Josu Varela

**Bikoizketako zuzendaria:**  
Alvaro Sánchez

**Sarrerako kanta:**  
Ana Tere Bengoetxea

**Ahotsak:**

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

**Audioko teknikariak:**

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

**Nahasketak:**

Gorka Lara

Juan C. Cantera

**Produkzioko laguntzailea:**

Ana Urresti

**Koordinatzailea:**

Jon Arce

# **EIMA 2000**

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren egokitasun-aitormena du:  
2004-02-19**

**LEGE GORDAILUA: : SS-559/03**

**L.C. PRODUKTOREA  
tel.: 945-230715**